



ZARAUZKO UDALA

OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUEK ETA ESTABLEZIMENDU KOMERTZIALEK BIDE PUBLIKOA ERABILI ETA OKUPATZEKO UDAL ORDENANTZA

AURKIBIDEA

ATARIKOA

I. KAPITULUA.- XEDEA, EREMUA ETA ESKUMENA

1. artikulua.- XEDEA
2. artikulua.- APLIKAZIO-EREMUA
3. artikulua.- ESKUMENA

II. KAPITULUA.- ARAUBIDE JURIDIKOA

4. artikulua.- LIZENTZIA LORTZEKO BALDINTZAK
5. artikulua.- LIZENTZIAREN INDARRALDIA ETA BERRIKUNTZA
6. artikulua.- ESKABIDEA ETA HORRI LOTUTAKO DOKUMENTAZIOA
7. artikulua.- TXOSTENAK ETA EBAZPENA
8. artikulua.- LIZENTZIAREN BALDINTZAK

III. KAPITULUA.- OKUPAZIOAREN BALDINTZAK

9. artikulua.- MUGA OROKORRAK
10. artikulua.- OKUPAZIOA
11. artikulua. BALDINTZAK, OINEZKOENTZAKO KALEETAN
12. artikulua. BALDINTZAK, PLAZA ETA ESPAZIO LIBREETAN
13. artikulua. BALDINTZAK, ITSASERTZEKO PASEALEKUAN

IV.- KAPITULUA.- OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUEN TERRAZETAKO INSTALAZIO OSAGARRIEN BALDINTZAK

14. artikulua. OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUETARAKO MUGAK
15. artikulua.- ORDUTEGIA ETA GARBIKETA, OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUEI LOTUTAKO
OKUPAZIOEN FUNTZIONAMENDUAN
16. artikulua. TERRAZETAKO INSTALAZIO OSAGARRIAK
 - 16.1. lboetako babesak
 - 16.2. Terrazari lotutako toldoak
 - 16.3. Egitura finko irekia
 - 16.4. Egitura finko itxia
 - 16.5. Fatxadara itsatsitako elementuak
17. artikulua. EGITURA FINKO IREKI ETA EGITURA FINKO ITXIETARAKO MUGAK
18. artikulua. INSTALAZIO ELEKTRIKOEN BALDINTZAK
19. artikulua. BEROGAILUEN BALDINTZAK
20. artikulua. OSTALARITZAKO TERRAZEN BALDINTZA ESTETIKOAK

V. KAPITULUA.- ESTABLEZIMENDU KOMERTZIALETAKO ELEMENTUEN BALDINTZAK

- 21. artikulua.- ESTABLEZIMENDU KOMERTZIALETARAKO MUGAK
- 22. artikulua. ESTABLEZIMENDU KOMERTZIALEI LOTUTAKO OKUPAZIOEN FUNTZIONAMENDU-ORDUTEGIA
- 23. artikulua.- ESTABLEZIMENDU KOMERTZIALETAKO ELEMENTUAK
- 24. artikulua.- PRODUKTUEN SALMENTA AUTOMATIKOA ETA JOLAS-MAKINAK
- 25. artikulua. OKUPATUKO DEN AZALERAREN MUGAKETA

VI. KAPITULUA.- ZIGOR-ARAUBIDEA ETA LEGEZKOTASUNA BERRESKURATZEA

- 26. artikulua.- BAIMENDU GABEKO INSTALAZIOAK
- 27. artikulua.- LIZENTZIAREN BALDINTZAK EZ BETETZEA
- 28. artikulua.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

XEDAPEN IRAGANKORRA

AZKEN XEDAPENA.

ATARIKOA

Biztanleriaren erabilera eta ohiturak denborarekin aldatu egiten direnez, herriko merkataritza, turismo eta ostalaritzako sektoreak ere, bere aldetik, etengabe egokitu behar izaten ditu bere zerbitzuak kalitatezko arreta eskaini ahal izateko; egokitzapen hori berrikuntzan eta etengabeko hobekuntzan oinarritzen da.

Zarauzko Udala etengabe aldatzen dabilen testuinguru batera egokitu behar da, eta ordenantzak, erregulazioak eta araudiak ezin dira errealitate horretatik kanpo geratu. Udalak zentzu horretan moldatu behar du bere arautegi osoa, arauok zeharkako errealitate dinamiko horretara egokitzeko dagozkion hobekuntzak eginez, eta, kalitatea eta errespetua oinarri hartuta, ostalaritza eta merkataritzako zerbitzu jasangarriak bermatuz. Horretarako, baina, ezinbestekoa izango da merkataria, ostalari, eragile turistikoa, eragile sozial eta erakundeekin batera elkarlanean jardutea.

Ordenantza hau, beraz, Zarauzko nortasun-ikurrak mantentzeko estrategia orokor baten barruan kokatu behar da. Zarautz ezaguna da bertako biztanleriaren bizitza-kalitatea handia delako eta, gainera, oso leku erakargarria delako bisitariarentzat. Helburu hori lortzeko, berdin zaintzen ditu gune publikoaren paisaia, eta baita irisgarritasuna ere, irizpide argi hauekin: harmonizazioa, antolamendua, eta ostalaritzaren eta merkataritzaren arloan kalitatezko zerbitzuak sustatzea. Eta horretarako helburu izango du, baita ere, *Zarauzko giro-soinua hobetzeko Ekintza Planean* islatuta geratu den kalitate akustikoa.

Erabilera orokorreko ondasunak modu pribatiboan erabiltzeak indargabetuta uzten du pertsona batzuen aldeko jabari publikoaren erabilera orokorraren printzipioa. Horregatik, kontrolatu eta arautu egin behar da erabilera horien eta erabilera orokorraren arteko bateragarritasuna.

I. KAPITULUA.- XEDEA, EREMUA ETA ESKUMENA

1. artikulua.- Xedea

1.- Jendearentzat irekita dauden ostalaritza-establezimenduetako eta establezimendu komertzialetako titularrek bide publikoan jarritako elementuekin egiten duten okupazioa eta erabilera arautzea da Ordenantza honen helburua. Establezimendu horiek irekitze-lizentzia, aurrekomunikazioa edo, araudiaren arabera, jarduera burutzeko gaitzen duen titulua eduki behar izaten dute.

2.- Bide publikoaren okupazio eta aprobetxamendu horien kategoria juridikoa "erabilera komun berezia" da eta gauzatu ahal izateko, kasu bakoitzean, aldez aurretik udal lizentzia eskatu eta Ordenantza honetan aurreikusitakoaren arabera emango da; dena den, horrek ez du esan nahi bere kokapenagatik beste baimen batzuk ere beharko ez dituenik. Jabari publikoko emakidek beren araudi zehatza izango dute.

3.- Aurreko atalaren ondorioetarako, honako elementuekin osatutako multzoak arautuko ditu Ordenantza honek:

- a) Ostalaritzako establezimenduek bide publikoan egindako okupazioa: terrazak, mahai eta aulki multzoak, eta ostalaritza-establezimendu baten jarduerarako lagungarriak diren beste zenbait altzari mugikor eta desmontagarriak (sonbrilak, estalkiak, kanpoko berogailuak, informazio-panelak, jardinerak eta antzeko elementuak) eta ostalaritza-establezimenduek beren jarduerarako behar izaten dituzten bestelako instalazio osagarriak (toldoak, egitura finko itxi edo irekiak, eta alboetako babesak).
- b) Establezimendu komertzialek bide publikoan egindako okupazioa, salmentarako produktuekin zein apaingarriekin (jardinerak, bereizgailuak, erakustegiak, publizitateko elementuak eta jarduerarekin zerikusia duen beste edozein elementu). Baimentzen diren elementuak jardueraren erreklamutzat hartu behar dira, sekula ez dira izango jardueraren luzapen bat.

4. Ordenantza honen araupetik kanpo geratzen dira, batetik, aldi baterako ekitaldietan egiten den espazio publikoaren okupazioa (azoka, festa, kirol-gertaerak eta antzekoak) eta, bestetik, kantinen ustiaketarako udal kontzesioek egiten dituzten okupazioak.

2. artikulua.- Aplikazio-eremua

1.- Ordenantza honek erabilera publikoko espazio guztietarako balio du (kaleak, plazak, barruko patioak, espazio libreak, pasabideak etab.), horien titulartasuna dena delakoa izanda ere. Berezko egoerak berak eta indarrean dagoen plangintzak erabakiko dute erabilera publikoaren izaera.

2.- Dena dela, ez zaie araudi hau aplikatuko Udalaren administrazio-kontzesio baten babesean, noizbehinkako ospakizunetan eta herriko jai-ekitaldietan, dagokion udal agintaritzak ezarritako egutegi eta baldintzapean egiten diren jarduera nagusien instalazio osagarriei.

3.- Jabari publiko itsas-lehortarrean edo bide-zortasuneko gunean jartzen badira elementuak, aldi baterako baimen horiek administrazio eskudunek emandako aginduak bete beharko dituzte.

4.- Ordenantza honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira honakoak:

- a) Kaleko salmenta.
- b) Kantinak ustiatzeko udal kontzesioak.
- c) Bide publikoan dauden pasabideak eta aparkaleku-erreserbak, edozein garraio-motatako geltokiak barne.
- d) Publizitateko kartelak eta hesiak.
- e) Lurreko zangak eta laginak.
- f) Jabari publikoaren okupazioak obrako bitartekoekin (aldamioak, garabiak, obra-hondakinen edukiontzia, obrako kasetak, eraikuntzako materialak eta antzekoak).
- g) Hauteskunde kanpainetako ekitaldiak direla-eta egiten diren okupazioak (mitinak, etab.)
- h) Lurpeko okupazioak ur eta saneamenduko hartune partikularrekin.

- i) Lurpeko okupazioak elektrizitate-sareak edo gas-sareak jartzeko, eta, baita ere, komunikazio elektronikoko sare eta zerbitzuetan lan egiten duten langileek telekomunikazio-sareak jartzeko eskatzen dituzten okupazioak.
- j) Behe solairuan terrazara lotu gabe dauden toldoak; hiri antolamenduaren plan orokorrak arautzen ditu horiek.

5.- Aurreko atalean zerrendatutako kasuak dagokien udal ordenantzaren eta sektoreko araudi aplikagarriaren arabera arautuko dira. Kantinen ustiaketarako udal kontzesioek baldintzen pleguetan xedatutakoa beteko dute.

3. artikulua.- Eskumena

Alkatetzari dagokio lizentziak ematea.

Alkatetzari baimena ematen zaio, berariaz, Ordenantza hau interpretatu, argitu eta gara dezan, administrazio prozedura erkideari buruz indarrean dagoen legediko printzipioen arabera.

II. KAPITULUA.- ARAUBIDE JURIDIKOA

4. artikulua.- Lizentzia lortzeko baldintzak

Ordenantza honetan araututako lizentziak eskuratu ahal izateko ezinbestekoa izango da:

1.- Jarduera burutzeko gaitzen duen jarduera ekonomikoen titularra izatea eta establezimenduak irekitze-lizentzia edukitzea, edo aurrekomunikazioa edo jarduera burutzeko gaitzen duen titulua.

2.- Ordenantza Fiskaletan jabari publikoaren okupaziorako aurreikusita dauden ordainketak egitea, garaiz eta dagokion moduan.

Zerga ordaintzeko epealdiren batean tasa ez bada epearen barruan ordaintzen, ondorioz gabe geratuko da emandako lizentzia. Kasu horretan espazio publikoa okupatzen jarraituz gero, falta larritzat hartuko da, eta ondorioz, dagozkion neurriak hartuko dira.

3.- Ez da bide publikoa okupatzeko baimenik emango, harik eta jarduera legeztatzeko beharrezkoak diren tramite eta egintza administratibo guztiak bete arte.

5. artikulua.- Lizentziaren indarraldia eta berrikuntza

Jende guztiaren interesak hala eskatzen duelako eta jabari publikoko espazioa mugatua delako, beharrezkoa da lizentzia-kopurua eta horien indarraldia mugatzea. Kasu bakoitzean adierazitako denborarako izango dira lizentziak, Ordenantza honetan ezarritakoarekin bat datozen zirkunstantziak kontuan izanda.

1.- Erabilera publikoko espazio bat okupatzeko emandako lizentziak (kaleak, plazak, espazio libreak, pasadizioak, etab.) a priori lau urterako emango dira. Hala ere, Udalak baimena ondorioz gabe utzi ahalko du, arrazoituta, edozein momentutan, eta aldez aurretik interesdunari entzunda.

2.- Baimenaren hasierako denboraldia bukatzen denean, baimena automatikoki berrituko da, urtero, eta baldintza beretan. Ez da hala gertatuko baimendutako pertsonak adierazten badu baimena bertan behera utzi nahi duela edo Udalak erabakitzen badu aurreko atalean aurreikusitako moduan jokatzea.

3.- Lizentziaren onuradunek hasierako baimenean edozein aldaketa egin nahi izanez gero (irekitze-lizentziaren edo jarduera burutzeko gaitzen duen baimenaren titularra, okupazio-azalera, altzariak, kokapena etab.), lizentzia eskatu beharko dute berriro ere eta, hala badagokio, baita lizentziaren transmisioaren berri eman ere.

4.- Baimena bertan behera geratzen bada, lizentziaren titularrak edo, hala badagokio, okupazioarekin zerikusia duen establezimenduaren arduradunak instalazio osoa kendu beharko du, bide publikoa lehen zegoen bezala utzita. Lehen bezala utzi ezean, Udal Zerbitzu Teknikoek egingo dute ardura duen pertsonaren kontura.

6. artikulua.- Eskabidea eta horri lotutako lizentzia

Interesdunak dagokion lizentzia-eskabidea aurkeztu beharko du Udalean. Eskabidearekin batera dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

1.- Oro har:

- a) Lokalaren kokapenaren planoak, 1:200 eskalan egina, edo krokisa, fatxadaren luzera eta instalazioarekin okupatu nahi den azalera mugatua zehaztuz.
- b) Instalatu diren altzari eta elementu osagarri guztien definizioa, materialen deskribapena, neurriak eta beharrezkoa den dokumentazio guztia (argazkiak, katalogoak...).
- c) Jarritako fidantzaren ziurtagiriaren kopia; lehen denboraldirako baimendutako okupazioari dagokion tasa bestekoa izango da fidantza hori.

2.- Ordenantza honetan araututa dauden konplexutasun teknikoeko elementuak baimentzerakoan, instalazio horiek arautzen dituzten artikuluetako xedapenak ere bete egin direla egiaztatu beharko da.

- a) Egitura finko irekiak instalatzeko, eskumena duen teknikariak sinatutako dokumentazioa aurkeztuko da, honakoa adieraziz:

- Jarri nahi den egituraren deskribapena, honako ezaugarriak adieraziz: neurriak, materialak, ainguraketa motak, ezaugarri estetikoak, eta abar.
- Instalatu nahi den egituraren oina, altxaera eta sekzioak jasotzen dituen planoak, eskalan egina.
- Instalazioen kokapenari buruzko planoak, hala badagokio, zerbitzu publikoetan izan daitezkeen eraginak islatuz (ura, saneamendua, argiteria).
- Indarrean dagoen araudia kontuan izanda, jasango duen kargaren kalkulua (bere pisua, erabilera-gainkarga, haizearen eragina, etab.). Beharrezko ainguraketa- sistema kontuan hartu beharko da.
- Instalazioek III kapituluko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko ziurtagiria.
- Instalazioaren aurrekontua.
- Baimenak irauten duen bitartean instalazioa barne hartzen duen erantzukizun zibileko poliza.
- Lurra lehen zegoen bezala uzteko bermea jarriko da.
- Lizentzia eman eta egitura jarri ondoren, muntaketari buruz teknikari eskudunak egindako ziurtagiria aurkeztu beharko da. Bertan, segurtasuna eta egonkortasuna jasota geratu beharko dira.

b) Egitura egonkor itxietan, aurreko letran adierazitakoaz gain, honakoa ekarriko da:

- Suteen aurkako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko ziurtagiria (suteen aurkako babes-instalazioak, ebakuazio-bideak, egonkortasuna eta suarekiko erreakzioa).
- Instalazioen planoak. Instalazio elektrikoa bukatutakoan, horretarako baimena duen instalatzailearen ziurtagiria aurkeztu beharko da edo, horrela balegokio, Baimendutako Kontrol Erakunde batek egindako ikuskapenaren ziurtagiria.

c) Berogailuen kasuan, artikuluko honetako 1 atalean aurreikusitakoaz gain, honakoa aurkeztuko da:

- CE ziurtagiria
- Berogailuaren fitxa teknikoa
- Erantzukizun zibileko aseguruaren kopia

d) Instalazio elektrikoaren kasuan, artikuluko honetako 1 atalean aurreikusitakoaz gain, honakoak aurkeztuko dira:

- Instalazioaren planoak, deskribapena eta ezaugarriak, Udal Zerbitzu Teknikoek euren oniritzia eman diezaioten.
- Argien potentzia >1 KW bada, honako dekretua betetzen dela justifikatu beharko da: 1890/2008 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Kanpoko argiteria instalazioen energia eraginkortasunaren araubideari buruzkoa (EA-01etik EA-07ra bitarteko jarraibide tekniko osagarriak).
- Jarritako potentzia <1 KW bada, egiaztatu egingo da instalazioa energiaren aldetik eraginkorra dela eta ez duela ez itsutuko ez eta argi-kutsadurarik eragingo.

- Instalazio elektrikoa jartzeko baimena emanaz gero, instalazioa bukatutakoan, honakoa ekarriko da:
 1. Baimena duen instalatzailearen ziurtagiria edo, horrela balegokio, Baimendutako Kontrol Erakunde batek egindako ikuskapenaren ziurtagiria.
 2. Argien instalazioaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria.

Ordenantza honetan berariaz arautu gabeko beste elementu batzuen kasuan, udal teknikariek erabakiko dute kasu bakoitzean zein dokumentazio osagarri aurkeztu beharko den.

7. artikulua.- Txostenak eta ebazpena

- 1.- Eskaera aurreko artikuluetan adierazi bezala aurkeztu ondoren, eta dagozkion txosten tekniko eta juridikoak egin ondoren, Udalak hiru hilabeteko epean hartuko du erabakia.
- 2.- Hala badagokio, txosten teknikoaren barruan plano baten bidez, baimendutako instalazioaren baldintza zehatzen dokumentu edo fitxa bat aurkeztu beharko da (kokapena, okupatuko den azalera etab.)
- 3.- Hiru hilabeteko epean espresuki ez erabakitzeak eskabidea ezetsi egin dela adieraziko du.

8. artikulua.- Lizenziaren baldintzak

- 1.- Lizenzia ezingo da arrazoitzat erabili titularraren jarduerako erantzukizun zibila edo penala ukatzeko edo murrizteko, eta beste baimen batzuk lortu behar izatetik ere ez du salbuesten.
- 2.- Lizenziaren dokumentuan instalazio eta elementu osagarrien baldintzak zehaztuko dira. Baldintza horien laburpen fitxa bat emango du Udalak, baimenaren titularrak establezimenduan ondo ikusteko moduan jar dezan. Fitxa horretan gutxienez kokapen plano bat jaso beharko du honakoak adierazita: okupatu daitekeen azalera, zein motatako mahaiak diren (altuak edo baxuak), baimendutako aulki edo elementuak, eta oinezkoentzako utzitako pasabide libreak. Gainera, ordutegia eta baimendutako denboraldia adierazi beharko dira udal dokumentu horretan.
- 3.- Lizenzia beti prekarioan emango da eta Alkatetzak instalazioak bide publikotik aldi baterako edo behin betiko kentzeko agindu ahalko du, baimendutako instalazio guztiengatik edo batzuegatik kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, hala egitea komeni bada arrazoi hauengatik: trafikoa, urbanizazioa, obrak edo ekintza kulturalak, kirolak eta interes orokorreko beste jarduera batzuk.

Dena dela, baimendutako instalazio osoa edo zati bat astebetetik gora egon behar bada kenduta, Udalak itzuli egingo du instalazioa erabili ezin izan den denboraldiari dagokion tasaren zati proportzionala.

4.- Instalazioaren ondorioz bide publikoan egindako kalte guztiak konpondu beharko ditu lizentziaren titularrak.

5.- Ordenantza Fiskaletan jabari publikoaren okupaziorako aurreikusita dauden ordainketak egin beharko ditu lizentziaren titularrak, bai eta jabari publiko itsas-lehortarraren okupaziotik sortutakoak ere, halakorik egonez gero.

Lizentziaren onuradunak ezingo ditu, inolaz ere, baimendutako elementuak instalatu adierazitako espazioan, Udalak onartutako ordainketak egin aurretik.

Epe hori bukatutakoan dagozkion tasak ordaindu gabe baldin badauzka, emandako baimena ondorio guztietarako iraungita geratuko da. Kasu horretan, eta hala badagokio, jabari publikoa okupatzeko lizentzia berria eskatu beharko du interesdunak, eta likidazio berria egingo da.

Era berean, jarduera dela-eta Udalari ordaindu behar dizkion eskubideen ordainketan egunean egon beharko du titularrak baimena lortuko badu.

6.- Okupazioa ezin izango da, inolaz ere, Udalak baimendutako azalera baino handiagoa izan, eta lizentziarekin batera aurkeztutako planoko mugen barruan geratu beharko dira establezimenduko elementuak eta bezeroak.

Debekatuta dago baimendu gabeko elementu osagarriak jartzea, esate baterako, kanpoko barrak, makinak edo antzekoak, ezohiko egoera baten aurrean baimen berezia izan ezean.

7.- Ainguraketa-sistemak erabili ahalko dira. Terraza jartzeko lizentzia-eskabidean zehaztu egin beharko da zenbat ainguraketa eta zein ainguraketa-sistema erabiliko den. Sistema horrek, erabiltzen ez dagoenean, ezingo du arkitektura-oztoporik eragin.

8.- Jardinerak, sonbrilak jartzeko euskarriak, altzariak eta instalazioak oro har beti egoera onean mantendu beharko dira.

9.- Lizentziak indarraldia galdu ondoren, eragindako baldosa guztiak ordezkatu beharko ditu okupazio-lizentziaren titularrak. Lizentziaren titulartasuna aldatzen bada, edo lizentzia bukatutakoan, beste titularren batek ainguraketa horiek erabiltzen jarraitu nahi badu, lizentzia berriaren eskabidean berariaz adierazi beharko du lizentzia bukatzen denean eragindako baldosak ordezkatzeko erantzukizuna bere gain hartuko duela.

10.- Establezimenduak bere kategoriaren arabera baimenduta dituen edari eta artikuluak bakarrik zerbitzatu ahalko ditu terrazetan, eta betiere udal ordenantzetan ezarritakoarekin bat etorrira.

Establezimenduaren ustiaketa-ordutegi osoan zehar langileek terraza behar bezala atendituta edukitzearen ardura lizentziaren titularrarena izango da.

11.- Lizentziaren titularra arduratuko da bizilagunek lasaitasunerako duten eskubidea errespetarazteaz, eta horregatik ez du iskanbila, haserre eta zaratarik ateratzen utziko, batez ere gaueko 22:00etatik terraza edo instalazioa itxi arte.

12.- Baimenaren titularra behartuta dago okupatutako eremua garbi-garbi edukitzera egun osoan zehar. Aldian-aldian erratza pasatu eta garbitu egingo du.

13.- Terraza edukitzeko ordutegia bukatzen denean, bertan dauden altzari guztiak bide publikotik kendu eta establezimenduan bertan edo lokal pribatu eta itxitakoren batean utzi beharko dira, eta okupatutako zona ere garbi-garbi utziko du beti. Horretarako, hondakinak bildu eta dagokion edukiontzietan utziko dira.

Egitura egonkor itxien kasuan, elementuak barruan gorde ahalko dira.

14.- Bizilagunak behin eta berriz kexatzen badira espazio publikoaren erabilerak sortutako eragozpenengatik, egoera aztertu eta Alkatetzak, kexuak aztertu eta egoki baderitzo, itxiera-ordutegia aldi baterako edo betiko mugatu ahalko du eta, hala badagokio, baita lizentzia baliogabetu eta instalazioa kentzera behartu ere.

III. KAPITULUA.- OKUPAZIOAREN BALDINTZAK

9. artikulua.- Muga orokorrak

Okupazio-lizentzia daukan azalera zehatza mugatzeko garaian, kontuan hartu beharko dira bertatik pasatzeko beharrak zenbaterainokoak diren eta mahaiak eta aulkiak edo beste elementu batzuk zein tokitan jartzen diren eta, hortaz, denbora guztian gutxieneko espazio bat utzi beharko da oinezkoak pasa daitezen, ondorengo arauen arabera:

1. Oro har, ezingo da elementurik jarri 2,90 metrotik beherako zabalera duten espaloietan eta oinezkoentzako espazioetan, ezta okupaziorik egin ere oinezko kale baten bi aldeetan, kaleak 3,80 metrotik beherako zabalera duenean.

Hala eta guztiz ere, eta kasu horietan salbuespen modura, baimena eman ahal izango da fatxadara itsatsitako elementuak jartzeko, Ordenantza honetako 10.3 artikuluan adierazitakoaren arabera.

2. Nolanahi ere, debekatuta dago terrazak edo beste elementu batzuk jartzea leku hauen parean: oinezkoentzako pasabideak; ezinduentzako aparkalekuak; suteetako ur-harguneak; larrialdi-irteerak; autobus eta taxi geltokiak; beira, kartoia eta zaborra jasotzeko edukiontzia, etab.

Era berean, jabari publiko itsas-lehortarreko zonaren aldamenean dagoen bide-zortasuneko eremua izenekoak irekita egon beharko du denbora guztian, bertatik oinezkoak eta zaintzako eta salbamenduko ibilgailuak pasatzeko.

Irisgarritasun araudiarekin bat etorriz, oinezkoaren eskubideak lehentasuna izango du, beraz, elementuak jartzerakoan beti libre utziko dira dendetako eta ezkaratzetako sarrerak.

3. Horrez gain, terrazak eta beste elementu batzuk jartzea debekatu ahal izango da bide-segurtasunagatik, obra publikoengatik edo Udalaren iritziz jendearen interesekoak izan daitezkeen antzeko beste arrazoi batzuentzat.

4. Debekatuta dago lorategietan elementuak jartzea.

5. Establezimendu komertzialetan debekatuta dago kanpoan saltzea.

6. Debekatuta dago establezimenduaren kanpoaldean megafoniako edo ikus-entzunezko elementuak jartzea, edo barruan dauden musikako ekipoak edo antzeko elementuak kanpora ateratzea.

7. Oro har, bide publikoa mahaiekin eta aulkiekin okupatzeko baimena emango zaie bere jarduera motagatik establezimenduaren barruan mahaiak eta aulkiak dituzten establezimenduei.

8. Debekatuta dago aparkalekuetako guneak okupatzea. Hala ere, Ordenantza hau indarrean sartzen den egunean indarrean dauden baimenek indarrean jarraituko dute, harik eta baimendutako pertsonak baimena bukatzea eskatzen duen arte, edo Udalak, interes orokorreko arrazoiengatik eta interesdunari entzun ondoren, lizentzia indarririk gabe uzten duen arte.

9. Eskatzaileak beste establezimendu baten pareko espazio publikoa okupatu nahi badu, okupazio hori eskatu ahal izango du. Udalak eskaera aztertu eta erabaki bat hartuko du ondorengo irizpideak haztatu eta interesdunari entzun ondoren: ea establezimenduan baimendutako jarduerarik badagoen, eta eskatutako okupazioak zein eragin izan dezakeen jarduera horren gainean.

10. Okupatutako azalerak jarraian zenbatuko dira, fatxada desberdinetan egiten diren okupazioetan izan ezik. Okupazioaren barruan moldatu beharko da okupazioa baimenduta duten establezimenduen sarbideak eta mahaien eta elementuen arteko zirkulazioa.

10. artikulua.- Okupazioa

1.- Aurreko artikuluan jasotako mugei utzi gabe, erabilera publikoko lurzoru publikoan edo pribatuan okupazioa egiten duten elementuek ondorengo okupazio-baldintzak beteko dituzte:

- a) Instalazioak denbora guztian bermatu beharko du oinezkoak inongo oztoporik gabe pasatu ahal direla, indarrean dagoen legeriako irisgarritasun eta igarogarritasun irizpideak betez eta fatxadatik oinezkoentzat gutxienez 2,00 metroko pasabidea errespetatuz.
- b) Oro har, arkupeak ezingo dira okupatu elementuekin, 13. artikuluan Itsasertzeko pasealekuko arkupeei buruz adierazitako salbuespenetan izan ezik. Salbuespen kasuetan arkupeetako okupazioa baimendu ahal izango da, kasuaren arabera jartzen diren baldintzekin, baldin okupazioa ezin bada beste leku batean egin.

c) Ibilgailuen zirkulazioa duten kaleetan:

- Bidearen eta espaloiaaren artean aparkalekua dagoenean, baimena ematen baldin bada aparkalekuak eta espaloiak bat egiten duten tokia okupatzeko, mahaiak eta aulkiak espaloiaaren ertzean, luzetara, eta gutxienez hogeita hamar (30) zentimetroko tartea utzita jarriko dira, aparkatutako ibilgailuetako bidaiarien sartu-irtenak ez oztopatzeko. Kasu horietan, aparkalekuen antolamenduaren arabera, luzetara egiten den okupazioa mugatu edo tarte hori handitu ahal izango da.
- Babes-hesirik egonez gero, bere barne-proiektzio bertikaletik gutxienez hamar (10) zentimetroko tartea utziko da.
- Bidearen eta espaloiaaren artean ez baldin badago ez aparkalekurik ez eta babes-hesirik ere, bide-motaren arabera, tarte bat utzi beharko da bideraino segurtasuna bermatzeko.

2.- Aurreko atalean ezarritakoa gorabehera, oinezkoentzat libre utzi beharreko gutxieneko bidea handitu ahal izango da, Udal Zerbitzu Teknikoen iritzirako oinezkoen joan-etorri handiak hala eskatzen badu.

3.- Salbuespenezko arrazoiak direla-eta komenigarria bada elementuak establezimenduaren fatxadaren ondoan jartzea –fatxadaren lerrokaduratik atzera sartutako edo kanpora ateratako elementuak daudelako, hiri-altzariak modu jakin batera banatuta daudelako, edo Udal Zerbitzu Teknikoen iritziz justifikatutako arrazoiak badaudelako – horiek jartzeko baimena eman ahal da, proposatuko diren baldintza teknikoaren arabera.

4.- Jabari publiko itsas-lehortarrean jar daitezkeen instalazioen dimentsioek kostako gaietan indarrean dagoen araudiko maximoak errespetatuko dituzte.

11. artikulua.- Baldintzak, oinezkoentzako kaleetan

1.- Oinezkoentzako kaleak: mugikortasunari buruzko ordenantzen II. eranskinean jasotakoak dira.

Oro har, elementuek gutxienez 3,5 metroko zabalera eta 4,5 metroko altuera librea edo galiboa utzi beharko dute, su-hiltzaileen, larrialdien eta poliziaren ibilgailuek bertara hurbiltzeko aukera izan dezaten. Salbuespenez, kasu bakoitzaren berezitasunen arabera, zabalera txikiagoak onartu daitezke, behar bezala justifikatuta badaude, Udaltzaingoak txostena egin ondoren, eta betiere gutxienez bi metro zabaleko oztoporik gabeko pasabidea uzten bada oinezkoentzat.

2.- Okupazioa gehienez ere kalearen ardatzeraino iritsi ahal da.

3.- Okupazioa egiten duten elementuak luzetara gehienez ere noraino jarri agindu ahal da Udal Zerbitzu Teknikoek, hartara, oinezkoek sigi-saga ibili beharrik izan ez dezaten.

4.- Bata bestearen parean dauden bi establezimenduk udal lizentzia eskatzen badute erabilera publikoko lurzoruaren okupazioa egiteko, Udal Zerbitzu Teknikoek erabakiko dute tokia nola banatu, egoera aztertu ondoren eta jarritako beharrezko neurrien arabera.

5.- Elementuak establezimenduaren fatxadaren ondoan jarri beharko dira, pertsonen joan-etorrirako bidea oinezkoentzako espazioaren erdialdean gera dadin. Salbuespen modura, fatxadatik bananduta jartzea baimendu ahal izango da, baina betiere gutxienez honako zabalera libreak utzita oinezkoentzako pasabidean: 2,00 metro okupazioaren alde banatan, hau da, gutxienez 2,00 metroko zabalera librea establezimenduraino, eta beste 2,00 metro parean dagoen eraikineraino. Oinezko asko ibiltzen den tokietan Udal Administrazioak gutxienerako zabalera handiagoa izatea eska dezake.

6.- Oinezkoentzako kaleetan instalazio bat baino gehiago dagoenean, egoera orokorrean aztertuko da, kasu bakoitzaren berezitasunak kontuan izanda.

Ohiz kanpoko zirkunstantziengatik komenigarria bada elementuak Udalak lehen adierazitakoa ez den beste toki batean jartzea, Udalak baimena eman ahalko du toki horretan instalazioa jartzeko, Udal Zerbitzu Teknikoek txostena egin ondoren eta bertan jarri dituzten baldintzen arabera.

7.- Zama-lanen ordutegia bukatu arte ezingo da bide publikoa okupatzeko elementurik jarri, oinezkoen eta larrialdiko ibilgailuen joan-etorria eragozten ez duten lekuetan izan ezik.

12. artikulua.- Baldintzak, plaza eta espazio libreetan

1.- Udalak ebatziko ditu espazio horietan elementuak jartzeko lizentzia-eskabideak, plaza edo espazio libre bakoitzaren ezaugarriak kontuan izanda, eta betiere ondorengo muga orokor hauen arabera:

- a) Fatxaden lerrokadura bakoitzean gutxienez bi metroko zabalera duen pasabidea utzi beharko da oinezkoen etengabeko eta oztoporik gabeko joan-etorria bermatzeko. Bestela, erdiko pasabide bat utzi beharko da, bertan dauden hiri-altzariak kontuan izanda. Oinezko asko ibiltzen den tokietan gutxienerako zabalera handiagoa izatea eska dezake Udal Administrazioak.
- b) Plazaren eta espazio libreen azaleraren eta ezaugarrien arabera banatuko da okupatu daitezkeen tokia kontuan izanik, batetik, toki horien erabilera, hau da, bertan egoteko eginda daudela, eta bestetik, zenbat establezimendu diren okupazio-eskaera egin dezaketanak.

2.- Plazetan eta espazio libreetan instalazio bat baino gehiago dagoenean, orokorrean aztertuko da egoera, kasu bakoitzaren berezitasunak kontuan izanda.

13. artikulua.- Baldintzak, Itsasertzeko pasealekuan

1.- 11 eta 12 artikuluetan jasotako mugei utzi gabe, okupazioa egiten duten elementuek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Dagokion fatxadaren lerrokaduran luzetara jarri beharko dira elementuak, eta pasealekuko farolek osatutako lerroraino gehienez ere, zabaletara.
- b) Instalazioak 11,00 metroko espazio librea errespetatu beharko du, pasealekuaren ertzetik.
- c) Arkupeen zati bat okupatu ahal izango da, betiere gutxienez 3,00 metroko zabalerako pasabide librea utzita fatxadatik edo arkupeko zutabeetatik.
- d) Kontuan izanda baimendutako ibilgailuek Itsasertzeko pasealekura sartu behar izaten dutela, eta, berez, pasealekutik ibiltzea guztiz debekatuta dutela, interesdunek ezingo dituzte elementuak jarri 10:00ak baino lehenago, eraikinetik 8 metroko zabaleran.

2.- Libre utzi beharreko gutxieneko ibilbidea handitu ahal izango du Alkatetzak, Udal Zerbitzu Teknikoek hala proposatuta.

3.- Guztiz debekatuta dago terrazen garbiketako urak eta/edo hondakinak itsasora, hondartzara edo jabari publiko itsas-lehortarrera botatzea.

4.- Zona honetarako ematen diren baimenak orokorrean aztertuko dira.

IV. KAPITULUA.- OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUEN TERRAZETAKO INSTALAZIO OSAGARRIEN BALDINTZAK

14. artikulua.- Ostalaritzako establezimenduetarako mugak

1.- Luzetara jartzeko garaian, instalazioak -Udalak onartutako alboetako babesak barne- gehienez ere okupa dezakeen tokia bat etorriko da establezimenduaren fatxadaren luzerarekin. Zeharka zenbat okupa daitekeen zehazteko, erabilera publikoaren aldetik espazio horrek nolako ezaugarriak dituen hartuko da kontuan, espazio horren jatorrizko funtzioa bermatuz.

2.- Alboetako babesak erabili beharko dira beste eraikin edo lokal batzuen sarreren ondoan dauden okupazioak mugatzeko.

3.- Oro har, okupazioa dagokion fatxadaren parean egingo da; okupazioa luzetara jartzeko garaian jarduera nagusiaren euskarri den lokalaren fatxada gainditu ahalko du, gehienez ere fatxada beraren luzera 2 aldiz, betiere terrazak luzetara etenik gabe jarraitzen badu. Kasu horretan, okupazioa luzetara gehienez ere 10 metrokoa izango da.

Salbuespenez, jarraiak ez diren okupazioak baimendu ahalko dira, bananduta dauden espazioetan edo establezimenduarenak ez diren beste fatxada batzuetan. Okupazio horietarako

kasu bakoitza aztertuko da. Dena dela, okupazioa luzetara gehienez ere fatxadaren beraren luzera 2 aldiz izango da eta betiere 10 metrokoa gehienez. Horrelakoetarako alde zurretik Udal Zerbitzu Teknikoen txostena beharko da eta horiek jarritako baldintzak bete beharko dira.

4.- Baimendutako azalera mahai-kopuru jakina jarri ahalko da, ondorengo moduluen arabera:

- 1 modulu: mahaia eta 4 aulki 1,50 X 1,50
- 2 modulu: mahaia eta 3 aulki 1,50 X 1,00
- 3 modulu: mahaia eta 2 aulki 1,50 X 0,75
- 4 modulu: kupela edo mahai altua aulkirik gabe, 0,50 m arteko aldamena edo diametroa duena (1,00 m²)

Beste modulu batzuk ere proposatu ahalko dira, mahaiaren jarleku bakoitzarentzat 0,50 m²-ko okupazioa errespetatuta.

15. artikulua.- Ordutegia eta garbiketa, ostalaritzako establezimenduei lotutako okupazioen funtzionamenduan

1.- Ordutegien arautegi orokorra Alkatezaren ebazpen bidez aldatu ahal izango da artikulua honetan aurreikusitako egoeretan.

Terrazak jarri eta kentzeko ordutegiak honakoak izango dira:

1 denboraldia (Ordenantza Fiskalekin bat etorrira)

- a) Kentzeko ordutegia goizaldeko 01:00etan izango da ostiral, larunbat eta jai bezperetan, eta gaueko 00:30ean gainerako egunetan.

2 denboraldia (Ordenantza Fiskalekin bat etorrira)

- a) Kentzeko ordutegia gaueko 00:30ean izango da ostiral, larunbat eta jai bezperetan, eta gaueko 23:00etan gainerako egunetan.

Terrazak ordutegi horren barruan kenduko dira.

Ezingo da mahai eta aulkirik jarri goizeko 8:00ak izan arte, ohiz kanpoko baimena izan ezean.

2.- Momentu bakoitzean ezarrita dagoen ordutegiaz gain, Alkatezaren dekretu bidez eta salbuespen modura, mahai eta aulkiak jasotzeko ordutegi malguagoak baimendu ahalko dira.

Nolanahi ere, mahai eta aulkiak jasotzeko ezarritako ordutegia alde batera utzita, Barne Sailak ezarritako ordutegiak errespetatu beharko dituzte establezimenduek, beren kategoriaren arabera, eta ezingo dituzte jarrita eduki establezimenduaren itxiera-ordutik aurrera.

16. artikulua.- Terrazetako instalazio osagarriak

Artikulu honen ondorioetarako hauexek izango dira terrazaren instalazio osagarriak:

1. Alboetako babesak
2. Terrazari lotutako toldoak
3. Egitura egonkor irekia
4. Egitura egonkor itxia
5. Fatxadara itsatsitako elementuak

1.- ALBOETAKO BABESAK

Terrazak jarritakoan okupatzen diren azalerak alboetako babesen bidez mugatu ahalko dira, barrutia markatuta geratuz, eta baldintza hauek beteko dituzte:

- a) Alboetako babesak inguruaren ezaugarriekiko aproposak izango dira beti, eta Udal Zerbitzu Teknikoek ontzat eman beharko dituzte.
- b) Alboetako babesen diseinuak lehentasuna emango dio bistak garbi ikusteari, eta ez dute herriaren ikuspegia oztopatuko.
- c) Itsuek erraz identifikatzeko modukoak izango dira.
- d) Ezingo dute baimendutako okupazio-azalera gainditu.
- e) Mugikorrak izango dira, desmuntatzen errazak, eta terrazaren funtzionamendu-ordutegitik kanpo jaso egingo dira. Ezingo dira lurlean ainguratu.
- f) Bere altuera 0,90 eta 1,20 metro artekoa izango da. 90 zentimetrotik gora elementu horiek gardenak izan beharko dira. Materialak inguruarekin eta terrazan dauden gainontzeko elementuekin bat etorriko dira, eta Udal Zerbitzu Teknikoek ontzat eman beharko dituzte. Erabiltzen direnerako zaratarik ez ateratzeko elementuak izango dituzte.
- g) Elementu guztiak baimendutako azaleraren barruan kokatuko dira, eta terraza jarrita ez dagoenean jaso egingo dira.
- h) Fatxadara itsatsitako okupazioen kasuan, etenik gabeko sekzioa izango dute eraikuntzaren lerrokadurei jarraipena emanez, hartara ikusmen arazoak dituztenentzat arriskurik sor ez dezaten.
- i) Batzuetan, eta betiere Udal Zerbitzu Teknikoen oniritziarekin, jardinerak erabili ahalko dira alboak eta aurrealdea babesteko.

2.- TERRAZARI LOTUTAKO TOLDOAK

Oihal edo olanaz egindako estalkia, fatxadara itsatsitako terraza gordetzeko zabaltzen dena eta jasota geratzeko sistema duena. Baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Orokorrean, toldoaren luzera gehienez ere establezimenduaren fatxadaren zabalera bestekoa izango da, eta gehienezko hegaldia, berriz, bat etorriko da baimendutako okupazioaren zeharkako garapenarekin. Salbuespenez, fatxadatik banandutako terrazaren kasuan, gehienez 4,00 metroko hegaldia baimendu ahalko da, eta oinezkoen pasabidean gutxienerako altuera libre 2,50 metrokoa izango da.
- b) Gehienezko altuera bat etorriko da beheko solairuaren sabaiko forjatuaren azpialdearen altuerarekin. Toldoak zabaldu eta jasotzeko elementuak eta horien euskarriak dira baxuago jarri ahalko diren elementu bakarrak, eta fatxadaren lerrokatutatik kanpo gehienez ere 0,20 m aterata.
- c) Alboak ezingo dira toldo edo zintzilikatutako beste elementu batzuekin itxi. Terrazaren alboak babesteko, artikulua honen 1. atalean alboetako babesei buruz ezarritakoa bete beharko da.
- d) Terraza bide publikoa okupatzen dagoenean erabiltzen bada toldoa, gutxienerako altuera 2,20 metrokoa izango da edozein puntutan.
- e) Terraza jarrita ez dagoenean, establezimenduaren barnean itzala lortzeko erabili ahal izango dira toldoak. Horrelakoetan, Plan Orokorrean beheko solairuetako toldoentzat ezarritakoa hartuko da kontuan.

3.- EGITURA EGONKOR IREKIA

Fatxadatik bananduta jartzeko baimena duten terrazak babesteko elementuak dira.

Terrazak fatxadatik bananduta jartzea baimentzen denean, Ordenantza honen arabera mugatutako gunea oihala, olana edo antzeko beste material batzuekin estali ahal izango dira. Material horiek espalora ainguratutako egitura finkoetan jar daitezke.

Honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Orokorrean, egitura finko irekiak jartzeko baimenak urtebetekoak izango dira. Baimena denboraldi baterako eskatzen bada, egitura bertikal guztiak bide publikotik kendu beharko dira eta eragindako zoladuran irisgarritasunaren araudia bete.
- b) Terrazarentzat baimendutako okupazioarekin bat etorriko da gehienezko azalera. Dena dela, mugatzerik egongo da, baldin eta Udal Zerbitzu Teknikoek hala justifikatzen badute.
- c) Pareko eraikinaren beheko solairuaren sabaiko forjatuaren azpialdearen altuerarekin bat etorriko da gehienezko altuera. Altuera minimoa, berriz, 2,20 metrokoa izango da baimendutako okupazio-azaleraren edozein puntutan. Elementu guzti-guztiak baimendutako okupazio-azaleraren barruan egon beharko dira.
- d) Terraza jarrita ez dagoenean, estaltzeko elementu guztiak handik kendu egin beharko dira, edo sistema baten bidez jaso.

- e) Terrazaren alboak babesteko, artikuluko honen 2. atalean alboetako babesei buruz ezarritakoa beteko da.
- f) Terrazaren erabilera-ordutegitik kanpo bide publikoan utzi nahi diren poste eta elementuak, ahal den guztietan, inguruko hiri-altzarien edo hiri-ekipamenduen lerrokaduran jasoko dira.
- g) Diseinu ireki berezia izango dute. Lehentasuna emango zaio bistak garbi ikusteari eta herriaren ikuspegia ez ezkutatzeari. Elementu estrukturalak batez ere altzairuzkoak izango dira (herdoilgaitza, burdinurtuzkoa...), eta pintatuta badaude, pintura oxiron motakoa izango da, edo bestela, inguruko hiri-altzarietan erabilitakoaren berdina.
- h) Oinezkoentzako kale edo plazetan orokorrean aztertuko dira, kasu bakoitzaren berezitasunak kontuan izanda.
- i) Egitura finko irekiak aingurarik gabe instalatu ahal izango dira, behar bezala frogatzen bada egonkorak eta mugiezinak direla.

4.- EGITURA EGONKOR ITXIA

Instalazio finkoak dira, erraz desmuntatu daitezkeenak. Egitura bat eta albo-itxiturak izango dituzte; egitura hori lurrera ainguratuta egon daiteke, eta gainean estalki bat izango dute. Halaber, zoladura desmuntagarria eduki dezakete.

Horrelako instalazioak gutxi erabilitako espazio libreetan baimendu ahal izango dira. Fatxadatik bananduta jarriko dira edo, aparteko kasuetan, baita establezimenduaren fatxadara itsatsita ere, baldin eta kokapen hori justifikatuta badago, eraikinen lerrokaduratik atzera sartutako guneak edo salbuespeneko kasuak daudelako.

Jabari publikoko emakidei aplikatu beharreko araudira egokituko da instalazio horien baimena.

Orokorrean, hauexek dira baldintzak:

- a) Gehienezko luzera establezimenduaren fatxadarena izango da edo horrekin bat datorrena.
- b) Instalazioak oinezkoentzako ibilbide nagusiei eragiten badie, horien zabalera librea ezingo da 5,00 metrokoa baino txikiagoa izan.
- c) Pareko eraikinaren beheko solairuaren sabaiko forjatuaren azpialdearen altuerarekin bat etorriko da gehienezko altuera. Barrualdeko altuera minimoa, berriz, 2,20 metrokoa izango da.
- d) Ezingo da inongo elementurik atera okupazioa baimendu den azaleratik kanpo.

- e) Zoladura desmuntagarria baldin badu, urbanizazioaren estolda-zuloak eta kutxatilkak erregistratzeko moduan geratu beharko dira.
- f) Diseinu ireki berezia izango dute. Lehenetsuna emango zaio bistak garbi ikusteari eta herriaren ikuspegia ez ezkutatzeari. Elementu estrukturalak batez ere altzairuzkoak izango dira (herdoilgaitza, burdinurtuzkoa...), eta pintatuta badaude, pintura oxiron motakoa izango da, edo bestela, inguruko hiri-altzarietan erabilitakoaren berdina.
- g) Udal teknikariek baldintza bereziak ezarri ahal izango dituzte kasu bakoitzean. Horretarako, instalazio bat baino gehiago dauden zonak orokorrean aztertuko dira, kasu bakoitzaren berezitasunak kontuan izanda.
- h) Instalazioen baldintzak:
- Aireztapena naturala izango da. Ezingo da klimatizazio-instalaziorik jarri.
 - Elektrizitate-instalazioa: instalazio elektrikoa baimendu ahal izango da, bai argiteriarentzat baita erradiadoreak erabiltzeko ere. Instalazio elektriko hori establezimenduko instalaziora konektatuta egongo da. Terrazaren konexioa ezin bada eraikinean integratu, lurzoru publikoaren azpitik konektatuko da instalazio elektrikorik. Instalazioa egiterakoan arau hauek beteko dira:
 1. Instalazioek bere puntu guztietan beteko dute arau hauetan ezarritakoa: indarrean dagoen Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoa eta Instrukzio Tekniko Osagarriak. Baimendutako instalatzaileak dagokion ziurtagiria egin beharko du.
 2. Lokaleko terrazan bakarrik emango du argia, auzokide, oinezko edota ibilgailuak itsutu gabe edo bestelako eragozpenik eragin gabe.
 3. Argiei eusteko, establezimenduaren egiturak erabiliko dira, inoiz ez zuhaitzak edo hiri-altzariak, hala nola, eserlekuak, farolak, seinaleak, eta abar. Egitura horiek segurtasun elementuak izango dituzte, bai mekanikoak, bai eta elektrikoak ere.
 4. Eroaleak ikusten ez diren kanalizazioetan gordeko dira, lur-azpian edo eraikinean integratuta.
 5. Kontuan izanda zein altueratan jarri behar diren, instalatutako aparatuak itxiak izango dira eta, UNE 20324 arauaren arabera, IP-65 babes-maila eduki beharko dute. Establezimenduaren koadro orokorrera konektatuta egongo dira, eta gainera, kontaktu zuzen edo zeharkakoen aurkako babes-sistemak eduki beharko dituzte, piztu eta itzaltzeko balio dutenak.
 6. Terrazaren funtzionamendu-ordutegian baino ez dira egongo piztuta argiak.

7. Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoan adierazitako maiztasunarekin ikuskatuko da instalazio elektrikoa, eta ikuskapen horren kopia bat emango zaio baimena emateko eskumena duen organoari.

5.-FATXADARA ITSATSITAKO ELEMENTUAK:

Salbuespenez, fatxadara elementuak itsatsi eta mahai altu modura erabili ahal izateko baimena ostalaritzako establezimendu hauek eskatu ahaliko dute: 2,90 metrotik beherako zabalera espaloiak dituzten kaleetan daudenean edo oinezkoentzako kaleetan daudenean, baldin eta 3,80 metrotik beherako zabalera badute.

Elementu horiek etenik gabeko sekzioa izango dute, ikusmen arazoak dituztenentzat arriskurik sor ez dezaten. Horrexegatik elementu horiek ezingo dute tabureterik eduki, fatxadako lerrokatutatik ezingo dira 40 zentimetro baino gehiago atera eta 0,80 metro eta 1,20 metro bitarteko altuera izango dute. Nolanahi ere, gutxienez 20 metroko zabalera duen pasabide bat utzi beharko dute oinezkoentzat, inongo oztoporik gabe.

Ezingo da horrelakorik baimendu terraza duten establezimenduetan.

Establezimenduen kanpoko aldean edariak eta jakiak uzteko apaltxoak jarri ahaliko dira, betiere fatxadaren lerrokatutatik kanpo ateratzen ez badira.

Bide publikoaren okupazioagatik dagokion tasa ordaintzeko, baimendutako luzera osoan 0,45 metroko zabalera kontatuko zaie elementu horiei.

17. artikulua.- Egitura finko ireki eta egitura finko itxietarako mugak

Udalak ebatziko ditu elementu horiek jartzeko lizentzia-eskabideak, inguruko ezaugarriak kontuan izanda, aldez aurretik Udal Zerbitzu Teknikoek txostena eginda, eta betiere, ondorengo muga orokor hauen arabera.

- 1.- Ezingo da egitura finko irekirik jarri fatxada edo arkupeetara atxikitako terrazetan.
- 2.- Ezingo da egitura finko itxirik jarri arkupeetara atxikita.
- 3.- Horrelako instalazioak jartzeko eskaera ukatu ahal izango da, hauetako edozein kasutan:
 - a) Bide segurtasunaren kalterako bada (ikuspena gutxiagotu, gidariari arreta galarazi...) edota oinezkoen joan-etorria nabarmen zailtzen badute.
 - b) Gunea erabilera anitzekoa delako edota urtean zehar bertan ekitaldi eta jarduera desberdinak egiten direlako, komenigarria ez bada horrelako instalazioak jartzea.

- c) Inguruko eraikin eta lokalen segurtasunean eragina izan dezakeenean (ebakuazioa...).
- d) Ingururako formalki desegokia denean, toki horrekin bat ez datorrenean, edo hiri-paisaiaren irakurketa zuzena zailtzen duenean.

18. artikulua.- Instalazio elektrikoaren baldintzak

1.- Instalazio elektrikoaren baldintza orokorrak:

- Instalazio elektriko hori establezimenduko instalazio elektrikorak konektatuta egongo da.
- Elektrizitate-eroaleak ikusten ez diren kanalizazioetan gordeko dira, lur-azpian edo eraikinean integratuta. Ezingo da aireko linearik jarri.
- Instalazioek bere puntu guztietan beteko dute arau hauetan ezarritakoa: indarrean dagoen Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoa eta Instrukzio Tekniko Osagarriak.
- Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoan adierazitako maiztasunarekin ikuskatuko da instalazio elektrikoak.

2.- Argiztapena:

- Terraza girotzeko besteko argia bakarrik jarri ahal izango da.
- Ezingo da, inondik ere, argiteria publikoaren argiztapen-maila gainditu.
- Argia emango da auzokide, oinezko edota ibilgailuak itsutu gabe, edo horiei bestelako eragozpenik eragin gabe.
- Ezingo da kolore deigarri-deigarririk, fosforito edo itsugarririk erabili.
- Hiriguneko Plan Bereziko printzipioen kontrako argi apaingarririk ezingo da jarri.
- Argiak instalazioan edo altzarietan sartuta egongo dira. Argiei eusteko, establezimenduaren egiturak erabiliko dira. Egitura horiek segurtasun elementuak izango dituzte, bai mekanikoak, bai eta elektrikoak ere.
- Aparatuak gehienez ere 2,50 metroko altueran jarriko dira, itxiak izango dira eta, UNE 20324 arauaren arabera, IP-65 babes-maila eduki beharko dute. Establezimenduaren koadro orokorrera konektatuta egongo dira, eta, gainera, kontaktu zuzen edo zeharkako aurkako babes-sistemak eduki beharko dituzte, eta horiek piztu eta itzaltzeko balioko dute.
- Terrazaren funtzionamendu-ordutegian baino ez dira egongo piztuta terrazako argiak.

- Argien potentzia 1 KW baino handiagoa bada, honako dekretua betetzen dela justifikatu beharko da: 1890/2008 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Kanpoko argiteria instalazioen energia eraginkortasunaren araubideari buruzkoa (EA-01etik EA-07ra bitarteko jarraibide tekniko osagarriak).
- Jarritako potentzia 1 KW baino txikiagoa bada: egiaztatu egingo da instalazioa energiaren aldetik eraginkorra dela eta ez duela ez itsutuko ez eta argi-kutsadurarik eragingo.

3.- Berogailuak

- Berogailuen erabilera 2. denboraldira mugatuko da (azarotik martxora).

19. artikulua.- Berogailuen baldintzak

- Berogailuek CE adostasun-aitorpena eduki beharko dute.
- Ezingo da gasezko berogailurik erabili inongo higiezinaren fatxadatik edo beste zenbait elementutatik (zuhaitzak, farolak...) 2,00 metro baino gutxiagoko distantzian, edo ekoizleak gomendatutakoa baino distantzia txikiagoan.
- Lizentzia edo baimenaren titularrak izango dira berogailuen zaintza eta erabilera egokiaren arduradunak. Berogailuak segurtasun baldintzak bete eta egoera ezin hobean egongo dira. Ordenantza Fiskaletan aurreikusitako 2 denboraldira mugatzen da bere erabilera.
- Berogailuak barne hartzen dituen erantzukizun zibileko aseguruia aurkeztu beharko da.
- Ezingo da gasezko berogailurik erabili egitura itxietan.

20. artikulua.- Ostalaritzako terrazen baldintza estetikoak

Oro har, era honetako instalazioak jartzeko lizentziaren titularrek ezingo dute publizitate komertzialarekin edo babesleen izenarekin apaindutako altzaririk erabili. Salbuespenez erabili ahal izango dira dauden tokiko hiri-paisaian itxuraldaketa handirik sortzen ez badute beren neurri eta ikusmen-eraginagatik, eta betiere udal teknikariek aldeko txostena egin ondoren.

Altzariak nagusiki aluminiozkoak edo egurrezkoak izango dira eta beste material batzuekin konbinatu ahalko dira, besteak beste, tratatutako egurra, biniloa eta beste batzuekin, betiere materialen kalitatea gutxitzen ez badute. Kanpoaldean altzariak arrastaka eramaten direnean edo kolperen bat izaten dutenean zaratarik ez ateratzeko moduko gomazko elementuak jarriko zaizkie euskarri guztietan.

Eskabide berrietan eta lizentzia berritzeko direnetan ere, adierazi egin behar dira jarri nahi diren instalazioaren eta altzarien euskarrietako gomazko elementuen ezaugarriak; horiek Udal Zerbitzu Teknikoen oniritzia jaso beharko dute.

V. KAPITULUA.- ESTABLEZIMENDU KOMERTZIALETAKO ELEMENTUEN BALDINTZAK

21. artikulua.- Establezimendu komertzialetarako mugak

- 1.- Ibilgailuen eta oinezkoen joan-etorria oztopatzen edo eragozten ez duten zonetan bakarrik baimenduko da.
- 2.- Lehentasuna emango zaio bistak garbi ikusteari eta herriaren ikuspegia ez ezkutatzeari. Elementuak bat etorriko dira kokatuko diren hiri-espazioaren inguruarekin.
- 3.- Erabilera publikoko espazioaren ezaugarrien arabera egingo da okupazioa, eta espazio horren jatorrizko funtzioa bermatuko da beti.
- 4.- Luzetara jartzeko garaian, instalazioak gehenez ere okupa dezakeen tokia bat etorriko da establezimenduaren fatxadaren luzerarekin. Ez du gaindituko establezimenduak okupatutako fatxadaren luzera.
- 5.- Jartzeko garaian, linealtasunari emango zaio lehentasuna, bai multzoarekiko bai altzari publiko, zuhaitz eta terrazekiko, oinezkoen joan-etorriak zuzenak eta sigi-sagarik gabeak izan daitezzen.
- 6.- Ez da baimentzen jakiak edo beste objektu batzuk kaxen edo antzekoen gainean pilatuta erakustea (ezkutuan gelditzen ez badira, behintzat). Ordenantza honetan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten erakustegiak erabili behar dira.

22. artikulua.- Establezimendu komertzialei lotutako okupazioen funtzionamendu-ordutegia

Establezimendu komertzialei baimentzen zaizkien elementuak establezimenduaren ordutegi komertzialean egon daitezke kanpoan jarrita, eta, gehenez ere, 8:00ak eta 22:00ak bitartean. Ordutegi hori bukatutakoan jaso egingo dira, eta bide publikoa garbi utziko da.

Establezimendua itxita dagoenean ezingo da elementurik eduki espazio publikoan. Establezimendua itxita dagoenean, arduradunak bere instalazioetan gorde beharko ditu elementu horiek.

Elementu horien ondorioz eragozpenak sortzen badira, egoera aztertuko da, eta Alkatetzak aukera izango du, egoki iruditzen bazaio, okupazioaren ordutegia aldi baterako edo behin betiko mugatzeko edo, bestela, lizentzia indargabetzeko eta instalazioa ken dezatela agintzeko.

23. artikulua.- Establezimendu komertzialetako elementuak

- 1.- Establezimendu komertzialek salmenta-gaiak eta jardueraren publizitate-elementuak jar ditzakete espazio publikoan erakusgai edo bide publikoaren beste okupazio mota batzuk egin ditzakete (betiere jarduera komertzialarekin lotutakoak).
- 2.- Sekzio jarraitua izango dute, eta proiektzio horizontala lurreraino iritsiko da, ikusmen arazoak dituzten pertsoneri arriskurik ez sortzeko.
- 3.- Oro har, zeharretara gehienez ere 0,90 metro hartuko dira, eta jarriko diren elementuen altuera 0,80 metro eta 1,00 metro artekoa izango da. Fatxadara itsatsitako okupazioak baimentzen badira, 1,80 metroko altuerako elementuak baimendu ahal izango dira, eta zeharretara 0,40 metro.
- 4.- Beste okupazio batzuk baimendu ahal izango dira, inguruaren berezitasunen arabera, udal teknikariek txostena egin eta gero, eta jartzen diren mugekin.
- 5.- Konposizio estetikoa egokia izango da, eta konposizio fisikoa zorrotza, horrela bermatuko baita pertsona guztien irisgarritasuna eta oinezkoen ibilbideetan eragozpenik edo distortsiorik ez sortzea. Edonola ere, eragindako erabilera publikoko espazio horrek 2,00 metroko ibilbide irisgarria bermatu beharko du beti oinezkoentzat.
- 6.- Bide publikoa okupatzen duten erakustegiak eta beste edozein elementu behar bezala pintatuta edo korrosiotik babestuta egongo dira, guztiz garbi eta ondo zainduta.
- 7.- Elementuok ezingo dira finkoak izan; hortaz, eskuz mugitu ahal izango dira, arrastaka eraman beharrik gabe, eta/edo gurpilak eta behar adina finkagailu edukiko dituzte, erabiltzen ari direnean ez mugitzeko eta iraulketen kontrako egonkortasuna bermatzeko. Egiturak ez du ertz zorrotzik edukiko, eta oinetan gomazko babesgarriak jarri beharko zaizkie, zaratak leuntzeko eta bizilagunei ahalik eta eragozpen gutxien sortzeko. Debekatuta egongo da erakustegien egonkortasuna bermatzeko horiek lurrean ainguratzea.
- 8.- Fatxadara itsatsita jarri daitezkeenean, elementuek gutxienez 0,6 metroko tartea edukiko dute ezkaratzetatik edo aldameneko beste okupazio batetik.
- 9.- Establezimenduaren kanpoko elementuen egiturak seguruak izango dira, eta baldintza estetiko edo apaindurazko egokiak izango dituzte. Elementuak, ahal izanez gero, aluminiozkoak, egurrezkoak, plastikozkoak eta kolore neutrokoak izango dira, eta inguruarekin eta fatxadekin harmonian egongo dira. Baimen edo establezimendu bateko elementu guztiak material, kolore (edo kolore-sorta), diseinu eta testura berarekin egindakoak izango dira.
- 10.- Banku eta finantza erakundeek kutxa automatikoak eta antzeko beste gailu batzuk jartzen dituzte fatxadetan. Horien bidez, erabiltzaileei etenik gabeko zerbitzua ematen zaie jabari publikoan. Horiek jabari publikoaren aprobetxamendu bereziak dira. Zerbitzu horiek deskribatutako moduan ematen dituzten banku eta finantza erakundeen ardura izango da jabari publikoan egiten den okupazioak ez eragoztearen haren ohiko erabilera eta ez oztopatzea oinezkoen

joan-etorria. Kutxazain horiek irisgarriak izango dira pertsona guztientzat, eta gutxienez 2,50 metro zabaleko aurrealdea libre eta oztoporik gabe duten lekuetan bakarrik baimendu daitezke. Hala ere, ordenantza hau indarrean sartzen den egunean indarrean dauden baimenek indarrean jarraituko dute, harik eta baimendutako pertsonak baimena bukatzea eskatzen duen arte edo Udalak, interes orokorreko arrazoiengatik eta interesdunari entzun ondoren, lizentzia indarrrik gabe uzten duen arte.

11.- Debekatuta dago pisatzeko, neurtzeko edo kobratzeko elementuak jartzea bide publikoan.

24. artikulua.- Produktuen salmenta automatikoa eta jolas-makinak

1.- Oro har, debekatuta dago bide publikoa okupatzea salmenta automatikoko makinak jartzeko.

2.- Salbuespenez, haurren aisialdiarekin lotutako jardueretan, goxokien salmenta automatikoko makinak eta haurrentzako aisialdi makinak edo antzekoak jarri ahalko dira, musikarik gabe, baldin eta oinezkoen joan-etorria oztopatzen ez badute eta okupatuko den espazioak horretarako aukera ematen badu. Aurretik aldeko txostena egin beharko du dagokion unitate administratiiboak.

3.- Bide publikora ematen duten fatxadetan, baimendutako edariak eta jakiak eta edonolako produktuak saltzeko jartzen diren makina eta gailu automatikoak jabari publikoaren aprobetxamendu bereziak dira. Makinok aukera ematen diete erabiltzaileei jabari publikoan zuzenean eta etenik gabe erosteko.

4.- Aurreko atalean deskribatutako makinen edo gailuen pertsona edo erakunde titularren edo horiek sortzen dituzten aprobetxamenduen onuradunen ardura izango da jabari publikoan egiten den okupazioak ez eragoztearen ohiko erabilera eta ez oztopatzea oinezkoen joan-etorria. Gutxienez 2,50 metro zabaleko aurrealdea libre eta oztoporik gabe duten lekuetan bakarrik baimendu daitezke. Hala ere, Ordenantza hau indarrean sartzen den egunean indarrean dauden baimenek indarrean jarraituko dute, harik eta baimendutako pertsonak baimena bukatzea eskatzen duen arte edo Udalak, interes orokorreko arrazoiengatik eta interesdunari entzun ondoren, lizentzia indarrrik gabe uzten duen arte.

25. artikulua.- Okupatuko den azaleraren mugaketa

Lizentzia lortu ondoren eta lizentziaren titularra edo bere ordezkaria tokian bertan dela, Udalak argi eta garbi adieraziko dizkio baimendutako gehienezko okupazio-azaleraren mugak.

Mugaketa hori lurzoruan bertan egingo da, Udal Zerbitzu Teknikoek definitzen duten sistema erabiliz, eta bere baimenik gabe ezingo da, inolaz ere, mugaketa hori aldatu edo kendu.

VI. KAPITULUA.- ZIGOR-ARAUBIDEA ETA LEGEZKOTASUNA BERRESKURATZEA

26. artikulua.- Baimendu gabeko instalazioak

Bide publikoan lizentziarik gabe jarritako edozein elementu, edo kentzeko eskatuta ere, kendu gabe geratu den elementuren bat, kautela-moduan eta berehala kendu eta horretarako izendatutako tokian gorde ahal izango du Udaltzaingoak, arduradunaren kontura; horrez gain, arauzko zigorrak ere jarri ahalko dira.

Erabilera publikoko lurzorua horrelako instalazioen bidez lizentziarik gabe okupatzea hirigintzako arau-haustetzat jotzen da eta, instalazio guztia desmuntatu eta kendu behar izateaz gain, indarrean dagoen hirigintza-ordenamenduan aurreikusita dauden zigorrak jarri ahalko zaizkio arduradunari, aurrez dagokion espedientea tramitatu eta gero.

27. artikulua.- Lizentziaren baldintzak ez betetzea

Lizentziaren baldintzak edo Ordenantza honetan jasotako aginduak betetzen ez badira isuna jarriko da, hirigintzari eta toki-araubideari buruz indarrean dagoen legedian agertzen den moduan eta aurrez dagokion espedientea tramitatuta; horrez gain, lizentzia baliogabetu eta, ondorioz, instalazioa berehala kenaraztea gerta daiteke Udalaren errekerimendua bete ezean.

28. artikulua.- Arau-hausteak eta zigorrak

Ordenantza honen ondorioetarako, arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izango dira.

1. Hauek izango dira arau-hauste arinak:

- a) Terrazak, mahaiak edo beste elementuren bat lizentziarik gabe jartzea, baldin eta eragindako molestiak hain txikiak izanik ezin badira larrizat hartu.
- b) Terraza, mahaiak edo beste elementuren bat jartzea, Udalak emandako baldintzen laburpen-fitxa ikusteko moduko tokian jarri gabe.
- c) Ezarritako ordutegitik kanpo jartzea terrazetako altzariak, baldin eta horretarako baldintzatutako baimenik ez badago.
- d) Baimendutako elementuak eta/edo establezimenduko bezeroak baimenduta dagoen espaziotik kanpo egotea edo jartzea.
- e) Terraza osatzen duten elementuak jaso ondoren, hondakinak ez jasotzea.
- f) Oinezkoen joan-etorria bermatzeko Ordenantza honetan adierazi diren neurriak ez betetzea.

- g) Okupatuko den espazioa apaindura, segurtasun eta garbiketaren aldetik behar bezain ondo ez edukitzea.
- h) Terrazen garbiketaren erabilitako urak eta/edo sortutako hondakinak itsasora, hondartzara edo jabari publiko itsas-lehortarreko gainerako ondasunetara botatzea.
- i) Edozein jarduera komertzial edo salmenta egiteko, espazio publikoa okupatzea baimenik gabe.
- j) Ordenantza honetan jasotako araudia ez betetzea, arau-hauste hori larria edo oso larria ez bada.

2. Hauek izango dira arau-hauste larriak:

- a) Terraza, mahaiak eta beste elementu osagarri batzuk lizentziarik gabe jartzea. Mota honetan sartzen da epearen barruan tasa ordaindu gabe okupatzen jarraitzea.
- b) Okupazio-tasa ez ordaintzea.
- c) Arau-hauste arina egitea, urtebetean bi arau-hauste arin edo gehiago egiteagatik bide administratiboan ebazpen irmoaren bitartez zigortua izan ondoren.

3. Hauek izango dira arau-hauste oso larriak:

- a) Arau-hauste larria egitea, urtebetean bi arau-hauste larri edo gehiago egiteagatik bide administratiboan ebazpen irmoaren bitartez zigortua izan ondoren.
- b) Lizentziaren edozein betebeharrak, debeku edo baldintza ez betetzea, behar bezala egiaztatu ondoren bizilagun edo oinezkoen interesari, segurtasun eta/edo osasunari kalte larriak eragiten dizkiola.

Aurreko arau-hausteei ondorengo eskalaren arabera isunak jarriko zaizkie:

- Arau-hauste arinak: 750 eurora bitarteko isuna eta/edo lizentzia baliogabetzea eta ondorioz instalazioa berehala kenaraztea, udal errekerimendua bete ezean.
- Arau-hauste larriak: 751tik 1.500 eurora bitarteko isuna eta/edo lizentzia baliogabetzea eta ondorioz instalazioa berehala kenaraztea eta/edo establezimendua gaitasunik gabe uztea Ordenantza honek arautzen dituen baimenak aurrerantzean lortzeko, gehienez ere 2 urtez, gertakarien larritasunaren arabera.
- Arau-hauste oso larriak: 1.501etik 3.000 eurora bitarteko isuna eta/edo lizentzia baliogabetzea eta ondorioz instalazioa berehala kenaraztea eta/edo establezimendua gaitasunik gabe uztea Ordenantza honek arautzen dituen baimenak aurrerantzean lortzeko, gehienez ere 4 urtez, gertakarien larritasunaren arabera.

Instalazioa aurrerago legeztatzen bada, eta arau-haustea etengabea izan ez bada edo udal errekerimenduei aurre egin ez bazaie, zigorra isuna jartze hutsera muga daiteke.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ordenantza honek berariaz indargabetzen du *Bide publikoa terraza eta mahaiekin okupatu eta erabiltzeko udal ordenantza*; Ordenantza hori 2013ko maiatzaren 14an onartu zen, eta 2013ko ekainaren 7an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (GAO, 108.zk.).

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bide publikoa terraza eta mahaiekin okupatu eta erabiltzeko Udal Ordenantzaren babesean (2013ko ekainaren 7ko GAO, 108 zk.) emandako baimen guztiak berritu egin beharko dira, eta interesdunek Ordenantza honetara egokitutako baimen berria eskatu beharko dute, Ordenantza onartu eta hilabeteko epean. Ordenantza onartzen denean indarrean dauden baimenak automatikoki luzatuko dira, harik eta Udalak eskabide berriak erabaki arte.

Jarritako epean baimen berria eskatu ezean, establezimendua lizentziarik gabe geratuko da automatikoki.

Indargabetuko den Ordenantzaren indarraldian zehar aurkeztu diren eskabideak oraindik erabaki gabe badaude, horiek ere eskabidea berritu beharko dute eta Ordenantza honetako xedapenetara egokitu.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean jarriko da, testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasi eta 15 egun balioduneko epean.